

XEDAPENA, 2023KO AZAROAREN 14KOA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI KUDEATZAILEARENA, ONARTZEN DUENA LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZAERA LORTZEKO ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA, LAGUNTZAILEAREN KATEGORIAN, OSATEK-EN DESTINOA DUEN LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko azaroaren 28an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, OSATEKen aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko azaroaren 30ean emandako xedapenaren bidez, onartu egin ziren OSATEKen destinoa duten laguntzailearen kategorian lan-kontratu finkodun langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, zuzendari kudeatzaileak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, baztertzeko-arrazoia adierazita, hala badagokio. Zerrenda hori xedapen honen eranskinetan dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEKen webgunean (www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: 5 egun balioduneko epea ematea zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko, OSATEKeko zuzendari kudeatzaileari bidalitako idazki baten bidez, edo helbide elektronikoa honetara:

op-as6621osatek@campo-ochandiano.com edo, bestela, posta arruntez, helbide honetara: OSATEK, S.A., Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011, Bilbao.

Bilbon, 2023ko azaroaren 14an
Zuzendari kudeatzailea

Josu Xabier Llano Hernaiz